

Jose Luis Elkoro erabat aske, zortzi urteren ondoren

Ezker abertzaleko militante historikoari 2010etik zeraman orkatiletako telematika kendu diote.

| URKO APAOLAZA AVILA |

JOSE LUIS ELKORO 2010ean irten zen espexetik, baina ordudanik orkatiletako telematika batekin egon da, eguneko ordu gehienetan etxetik irten ezinik. Bost urteotan astero joan behar izan da Martuteneko espexera paper bat sinatzera, eta ekitaldi politikoetan parte hartzea debekatu dio epaileak.

Irailaren 2an erabateko askatasunean geratu zen, espexetik deia jaso ondoren. Hasierako hitzordua biharamunean zuen Elkorok, baina politikari ohia kaleratzeko sortutako Mugituko Da plataformako Joseba Moñuxek ARGIARI azaldu dionez, egun horretarako bergarar ugari joatekoa zen Martutenera bi autobuse-tan eta, euren ustez, espexeko arduradunek hori saihestearren aurreratu zuten libre uztea. Nolanahi ere, Elkorori lehen harrera egin zioten Bergarako Munibe plazan.

Birritan espexeratua

1935ean jaioa, 80 urte ditu Elkorok eta 1976ko alkateen mugimenduan giltzarri izan zen. Urte luzetan politikara emana, 1997an atxilotu zuten HBko mahai nazionaleko beste kideekin batera. 18 hilabete egin zituen espexean.

Epaileak 18/98 auzian inputatu zuen *Egin* egunkaria itxi ondoren eta 24 urteko kartzelara zigortu. 2009an epai irmoa kaleratu zenean –8 urtera jaitsi zioten zigorra– berriz atxilotu zuten eta 2010ean irten zen espexetik kontrolpeko baldintza oso gogorrek.

Mugituko Da plataformak azaldu duenez erabateko askatasuna lortzeko gakoa izan da epaileak aintzat har-



ARGAZKI PRESS / RAUL BOGAJO

Erabateko askatasuna lortu bezain laster egin zioten lehen ongi etorri publikoa senide eta lagunek Elkorori, Bergarako Munibe plazan.

tzea 1997 eta 1998an espexean igaro zituen hilabeteak –Konstituzio Auzitegiak errugabe jo zituen HBko kideak–.

Trantze historikoak

Bergaran ekitaldi politikoa antolatu zuten irailaren 4an, “Jose Luisek askatasuna berreskuratzean bakearen eta batasunaren aldeko mezua zabaltzeko” helburuz, Moñuxen esanetan. Besteak beste, Bergaran alkate izandako guztiek hitz egin zuten, baita Elkorok berak ere, eta Arnaldo Otegiren idatzia irakurri zen: “Egun, bide luzea egin dugun honetan, berriz ere Erreformaren edo Haustura Demokratikoaren arteko talka ate-joka dugu. Orain dela 35 urte halako trantze historikoan egon ziren Jose Luis eta bera-

rekin batera Herri Batasuna antolatu zutenak. Horregatik behar ditugu orain ere bidelagun”. Elkorok Otegiren hitzak eskertu eta “bera bezalako liderrak” behar direla nabarmendu zuen.

Hainbat urtetan lehenengoz politikaz askatasunez hitz egin ahal izan du militante historikoak. *Goienari* eskainitako elkarrizketa batean honakoa azaldu du: “Ez da momentu itxaropentsua, zatituta gaudelako, baina ikusten ditut argi batzuk. Gure Esku Dago bada argi bat; gai bagara hori indartzen, egin daiteke bide bat alderdien gainetik”.

Laguntzeko prest azaldu den arren, Elkorok ez du asmorik berriz ere “politikan sartzeko”, baina beste aukera asko ikusten ditu “Euskal Herriaren alde lan egiteko”. ■